

JOKABIDE ZUZENAK (ETIKA) ASMATZEN

Aurrerapen utsa (evolución) bide dala azaldu ete lei etika edo morala, jokabide zuzenaren arauak?

Darwin'ek baietz uste eban, baiña gero gai oneri buruz azkenengo liburuak eskuratu ebazenean eta eritxi ezberdina aurkitu, batzuk etika gizakien arteko akordua zala inoen, beste batzuk sakonagoa dala, bera be zalantzan jarri zan. Ete dauke egokitze guzti oneik oiñari bakar bat?

Gizakiak etika zentzun bat ba-daukela uste eban, esaterako gizakiena bakarrik da benetako altruismoa, ez beste simioena. Baiña gauzea ez eban argi itzi.

Altruismo biologikoa ez dago simioetan, baiña “moral” gizakietan bai, asikera leinuaren barruan, gero errian, gero enda osoan, gero “herentzi” edo etoripide biurtu zan (neodarwinismo dau au). Moral sutsua daukagu, ez gara beste simioen antzekoak. Gure izakereagaz datorkigu ori.

ZELAKO ALKAR LAGUNTZAK GIZARTEAN?

Darwin'en burubideak ez daroa alkar laguntzarik, balio duan bakarrik egiten dau aurrera eta orretarako laguntza baliogarria da.

Baiña taldearentzat gauza ona da laguntza emotea. Eun urte geroago agertu zan taldea aurrera aterateko gogoia be baliokoa dala.

SENIDEAI LAGUNTZA

Pizti guztietan jazoten da senideai besteak baiño lenago laguntzea. Gogoratu erleen alkar-lana. Gizakietan be bardin.

Piztiak emoten daben alkar laguntza, geneena da, baiña gizakiak beste laguntza bat dauko, etxeko laguntza.

Guk emoten dogun laguntza, geneetatik be ba-dator, baiña gure aurretikoak geneen laguntza baiño geiago emon eben.

Amak umeak zaintzen dauz, ori geneen laguntza izan leiteke, baiña geiago be bai. Kant'en irakatsia zan alkar laguntza naimenetik datorrela, berak ez eukan geneen berri aundirik. Baiña gauza bat da biologia'ko laguntza eta beste bat etikak eskatzen dauna. Ez dagoz alkarrengandik urrin.

ALKAR LAGUNTZAREN AURRERAPENA

Taldea aurrera aterateko gurari bizia geneetatik dator, erleak lez.

Gizakian etika-zentzuna dauko gainera. Ortik sortzen dira gizandiak edo “heroes”.

NOZKOAK DIRA LENENGO JOKABIDE ETIKOAK?

Lenengo gizakiak agertu ziranetik, basoaren eta sabanaren bitartean, lanabesak egiteko orduan agertu zan.

Garunak aundi egin ziran ordu beratan. “Homo habilis” izan zan, ori lenengo egin ebana.

Neandertalak illak obiratu egiten dauz eta ori etika-arloan dago, alkar laguntzan. Zauriak eukezanak edo agiñik ez eukena ezin bizi izango ziran “altruismo” barik eta bizi ziran.

Eizarako be bear zan alkar laguntza, gero janariak banatzeko be bai.

Besteak orde emotea eskatu arren, esaterako azkurea alkarrari kentzeko, amak ez dautso umeari orderik eskatzen.

Ba-dauko etika-arazo onek alkar bizitzagaz zer-ikusia: Lanak banatu!

Erabagiak artzako neuronak buru-azurrean orman dagoz, edo alboan edo aurrerantza, gizakiengan, besteetan ez dagoz.

AMAITZEN

Ikusi doguz gure aurretikoak (hominidoak) millak urteetan egin ebezan bideak, abar asko daukazan landara baten antzera zabaltzen dirala.

Bidearen irudia oraindiño ohea da. “Homo sapiens” da hominido bakarra gaur lur onetan bizi dana. Or ikusi dogu oin bigaz ibiltzen ikasten eta berbetea asmatzen edo lanabesak egiten edo janariak billatzen (eiza).

Linneo'k “primates” izena emon eutsen, bere ustez lenengoak ziralako, beste bizidun guztiak baiño lenagokoak.

Txinpazeakaz eta gorilakaz batera bizi gara gu “homo-homo” garanak.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKERAZALEAK

URTEROKO BATZARRA:

Eguna: 2008-03-13

1.º Deia: 71/2'etan

2n. Deia: 8'00'etan

Egitaraua:

- Aurreko batzarraren agiria
- Urteko kontuak
- Urteko ekintzak
- Batzorderako arduradun barriak
- Itaunak eta eskariak